

BALIO PROPOSAMENA

Proiektu honek XXI. mendeko erronka nagusiari aurre egiten dio, eta garapen jasangarriko bi helburu lortzen laguntzen du, “klimaren aldeko ekintza” eta “ekoizpen eta kontsumo arduratsuak”, alegia. Gainera, familiei dirua aurrezteko aukera ematen die, haien ekonomiari lagunduz.

Horrez gain, jakina den moduan, oraindik erregaiek (petroleoa, esaterako) sortzen duten kutsadura nabaria eta jarraia da gure munduan, horiek murrizteko saiakerak egin diren arren. Hori dela eta, gure esku dago munduko ongizateaz arduratzea, ahal dugun neurrian. Plastikoak birziklatzea kutsadura murrizteko ezinbesteko urratsa da, eta hori egiteko anima zaitezten eta, are garrantzitsuago, jendearen ohitura eta jarrera alda dadin, gure produktua eskaintza zoragarria delakoan gaude.

Horrez gain, badakigu plastikoak birziklatzegtatik saritzen zaituzten enpresak badaudela (xedea berdina baita), baina gure produktuak aurkezten duen berritasuna egiteko modua da: prozeduran dendetan erabiltzeko deskontuak irabaziko baitituzu.

